



BEASAIN
KIROL SARIAK



2018. URTEKO DEIALDIA OINARRIAK

Lehena.- Helburu nagusia da Beasaingo edo Beasainen kirol alorreko jarduera bultzatzen, sustatzen edota emaitzetan nabarmendu diren pertsonen eta erakundeen aipamen berezia egitea eta jendeaurrean esker ona adieraztea.

Bigarrena.- Sariak ohorezkoak dira; hau da, ez dute inolako ekarpen ekonomikorik izango. Sari hauen bidez egindako lana jendeaurrean goraiatu eta horretarako antolatuko den ekitaldian bakoitzari dagokion ikurra emango zaie sarituei.

Hirugarrena.- Sariak 2 kategoriatan banatu dira:

- 1- URTEKO KIROL SARIAK eta AIPAMEN BEREZIAK.
- 2- OHOREZKO UDAL SARIAK.

Laugarrena.- URTEKO KIROL SARIAK eta AIPAMEN BEREZIAK 2018

Oinarrizko 4 sari aurrikusi dira.

- 1.Emakumezko Kirolariari edo Kirol Taldeari Saria 2018.
- 2.Gizonezko Kirolariari eta Kirol Taldeari Saria 2018.
- 3.Kirol Jardunaldiari Saria 2018
- 4.Erakunde Babesleari Saria 2018.

SARI NAGUSIA 2018. Epaimahaiak Saridun guztiak izendatu ondoren, hauen artetik erabakiko du zein den Sari Nagusia. Dagokion oroigarriaz aparte, Sari Nagusiak oroitzapenezko plaka izango du Antzizar Kiroldegian, helburu horretarako egokituko den gunean.

URTEKO AIPAMEN BEREZIAK. Beasaingo kirolari edo kirol taldeek kirol jardueretan izandako partehartze nabarmenak edo lorturiko emaitzak aitortzeko asmoz aipamenak egin dira. 2018. urtean gehien nabarmendu diren Beasaingo kirolarien lorpenak omentzea da helburua. Epaimahaiak eskumena izango du aipamen bereziak izendatzeko.

Bostgarrena.- OHOREZKO UDAL SARIAK.

Ohorezko 2 sari aurrikusi dira:

- 1.- Kirol Ibilbideari Ohorezko Saria 2018.
- 2.- Kirolaren Ohorezko BEASAIN Saria 2018.



BEASAIN KIROL SARIAK



KIROL IBILBIDEARI OHOREZKO SARIA 2018. Beasaingo Kirolaren Udal Fundazioak eskumena izango du, egoki ikusiko balu, ondorengo sari berezia emateko: KIROL IBILBIDEARI SARIA. Kirol munduan urteetan egindako jarduera eta jardunen ibilbidea edo curriculuma. Beasaingo pertsonen edo entitateen jardunbide bikaina aitortzeko helburuz eratua.

KIROLAREN OHOREZKO BEASAIN SARIA 2018. Beasaingo Udalak eskumena izango du, egoki ikusiko balu, sari berezia emateko: KIROLAREN UDAL SARIA 2018. Ohiz kanpoko goresmen saria da, Kirolarekin lotuta 2018. urtean BEASAIN herriaren izena zabaldu duten pertsonen edo entitateen jardunbide bikaina aitortzeko helburuz eratua.

Seigarrena.- Edonorrek aurkez dezake izangai bat edo batzuk sari bakoitzerako. Beasaingo Udalak prestatutako aplikazioaren bitartez edo Antzizar Kiroldegian dagokion inprimakia betez aurkeztu beharko dira proposamenak.2018/11/23tik 2018/12/09ra.

Zazpigarrena.- Proposamen guztiak aztertu eta Oinarrizko Sariak eta Aipamen Bereziak emateko epaimahai bat osatuko da. Kirolaren Udal Fundazioko lehendakariak batzorde aholku-emaila bat izendatuko du izangaien merezimenduak baloratzeko. Lehendakariarekin batera epaimahaikide izango dira:

- Kirolaren Udal Fundazioko zuzendaria.
- Beasaingo Udaleko komunikazio arduraduna.
- Beasaingo kirolaren berri edota kirolari beasaindarren berri jarraitzen duen komunikabide edo kazetari bat.
- Aurreko urteetako saridun bat.
- Kirol elkarte edo kirol teknikaria, kirolaren eta gorputz ekintzen esparruan izen ona duen pertsona edo entitatearen ordezkaria.

Zortzigarrena.- Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da eta horren aurka ezin izango da errekurtsorik aurkeztu.

Bederatzigarrena.- Kategoria bakoitzari dagokion ikurra emango zaie sarituei horretarako antolatutako ekitaldi publikoan.

Beasainen 2018ko azaroaren 19an.

Sin.: Elena Ruiz Zabala
Kirolaren Udal Fundazioko Lehendakaria